

Informazio Kita

Klimari buruzko Bilboko Herritarren Batzarra

2025eko otsaila

Ongi etorri **Klimari** buruzko Bilboko udalerriaren Herritarren Batzarrera.

Eskerrak eman nahi dizkizugu Herritarren Batzar honetan parte hartzeko hartu duzun konpromisoagatik eta prestutasunagatik. Izan ere, hau da gure udalerrian martxan jarri den delibrazio formatu honetako lehen ekimena.

Informazio Kit hau Batzarrari, bere funtzionamenduari eta informazio praktikoari buruzko oinarritzko informazioa eskaintzeko material lagungarria da. Honetaz gain, lehenengo saioak ere Batzarrean kokatzeko eta prestakuntza jasotzeko balioagarriak izango dira bertan parte hartuko duzuenontzat. Hasi aurretik, Informazio Kit hau arretaz irakurtzera gonbidatzen eta animatzen zaitugu.

1. Zer da Klimari buruzko Bilboko Herritarren Batzarra?	pág. 4
2. Zein da Batzarraren funtzionamendua?	pág. 6
3. Klima-alaketaren aurrean	pág. 9
4. Parte hartzeko baldintzak	pág. 12

Antolakuntzarekin harremanetan jarri behar baduzu,
bide hauek erabil ditzazkezu:

Posta elektronikoa: asamblea.clima@bilbao.eus
Telefonoa: 644 530 481

1. Zer da Klimari buruzko Bilboko Herritarren Batzarra?

Klimari buruzko Bilboko Herritarren Batzarra 50 laguneko talde adierazgarria da, zozketa bidez aukeratua.

Deliberazio izaera du, eta klima aldaketaren aurrean egin beharreko bideak eta honetara egokitzeko abian jarri beharreko ekintzak izango ditu ardatz, **gizarte-justiziako konpromisoarekin**.

Helburua da herritarrek Bilboko udalerrian klima-aldaketari aurre egiteko moduari buruzko ideiak, balorazioak eta proposamenak pentsatzea eta partekatzea. Laburbilduz, hiri gisa zer egin beharko genukeen eztabaidatzea eta Udalari gomendioen zerrenda bat aurkeztea.

Nork sustatzen du Batzar hau?

Klimari buruzko Bilboko Herritarren Batzarra Bilboko Udalak sustatzen du. Bilboko Udalbatzak, 2023an, Klimari buruzko Bilboko Herritarren Batzarra bultzatzea erabaki zuen. Udaleko Mugikortasun eta Jasangarritasun Salla arduratzen da deliberazio prozesu hau bultzatzeaz.

Zergatik?

Bilboko Udalak ingurumen-arazoen konponbidean eta, bereziki, klima-aldaketaren larrialdian parte-hartze publikoaren aldeko apustua egin du, herritarrei hitza emanez konponbiderako gomendioak hausnartu ditzaten.

Udalak gure hiria deskarbonizatzeko eta klima-aldaketara egokitzeko duen nahia handia da, eta foro hau aukera bat da herritarrek hartuko diren erabakietan eragina izan dezaten.

Zer da Herritarren Batzarra?

Herritarren Batzarra zozketa bidez hautatutako pertsona talde bat da, bere osaeran komunitate baten adierazgarria dena. Kideek denbora asko ematen dute ikasten eta lankidetzan, eztabaida erraztuen bidez, puntu komunak aurkitzeko eta gomendio kolektiboak formulatzeko arduradun politikoentzat, erabakiak hartzeaz arduratzen diren pertsonentzat eta komunitatearentzat.

Iturria: “Assembling an Assembly Guide: A how-to guide” (DemocracyNext, 2023)

Zer da talde deliberazioa?

Deliberazio prozesu batean, parte-hartzaileak adostasun-puntuak identifikatzen saiatzen dira eta, puntu horietan oinarrituta, gomendioak egiten dizkiote erakunde publikoari. Hori lortzeko, praktikan jartzen dira: entzute aktiboa eta pausatua; hainbat ikuspegi aintzat hartu eta aztertzea, eta parte-hartzaile bakoitzak hitz egiteko aukera izatea. Fazilitazio talde kualifikatu baten laguntzaz errazten da eta honek lan-formatu ezberdinak proposatzen ditu, besteak beste, talde txikiak eta osoko bilkurak.

Zer da gizartearen lagin deskribatzaile bat?

Hainbat irizpide sozio-demografiko kontuan hartuta eratutako pertsona-talde bat. Klimari buruzko Bilboko Herritarren Batzarrari dagokionez, irizpide hauek erabili dira: sexua, adina, bizitoki duen barrutia, jaioterria eta amaitutako ikasketa-maila.

Iturria: “Participación Ciudadana Innovadora y Nuevas Instituciones Democráticas” (Economía Lankidetzaz eta Garapenerako Erakundea, 2020)

2. Zein da Batzarraren funtzionamendua?

Herritarren Batzarrak galdera orokor bat du abiapuntu, deliberazio prozesua mugatu eta gai zehatzago batera bideratzen duena. Horren ondorioz, hainbat sektoretatik edo jarduera-eremutatik bideratuko diren gomendioak sortzeko bidea emango du.

Lan-prozesua 4 orduko 6 lan-saiotan garatuko da:

F1: Prestakuntza eta deliberazioa				F2: Gomendioen definizioa eta hautaketa	F3: Gomendioen entrega
S1	S2	S3	S4	S5	S6
Ongietorria eta aurkezpena	Prestakuntza	Prestakuntza	Prestakuntza	Gomendioak aberastea	Gomendioen garapena
Balio komunak ezartzea		Deliberazioa	Deliberazioa	Deliberazioa	
Interesak eta espektatibak	Talde-hausnarketa		Lan-ardatzak	Gomendioak	Bozketa bidezko baliozkotzea
Prestakuntza					

Prozesua koordinatzaile-talde batek emango du. Talde hori arduratuko da lan-saioak prestatzeaz, batzarraren talde-dinamikak errazteaz, deialdiak parte-hartzaileei bidaltzeaz eta saioen aktak egiteaz.

Lan-prozesua hiru fasetan egituratzen da.

F1: Prestakuntza eta deliberazioa

Lehenengo saioan gaia eta galdera klimatiko zehatza aurkeztuko dira.

Lehenengo fase honetan, deliberazio ariketa egin ahal izateko oinarritzko prestakuntza eskainiko zaie Herritarren Batzarreko parte-hartzaileei. Prestakuntza pilulak eta deliberazioa tartekatuko dira, prestakuntza-prozesuak ibilbide zabalagoa izan dezan eta beharretara egokitzen joan dadin.

Deliberazio gaiari buruzko informazio esanguratsua, ulerterraza eta ikuspegi askotarikoa jasoko dute parte-hartzaileek.. Horretarako, arlo ezberdinetako adituak diren hiru hizlari izango dira Batzarrean eta ikuspegi didaktikotik deskribatu eta aurkeztuko dituzte Bilboko klima-aldaketaren inguruan dituen mehatxuak eta irtenbide posibleei aurre egiteko moduak.

Fase hau Batzarrak sortutako lehen gomendio zerrenda batekin amaituko da.

F2. Gomendioen definizioa eta hautaketa

Lehenengo eta bigarren faseen artean, Udaleko figura teknikoekin kontraste bat egingo da, proposatutako gomendioen bideragarritasuna bermatzeko.

Horrela, bigarren fase honetan, Batzarrak gomendioak definitzen jarraituko du, eta bozkatuaz balioztatu egingo du emaitza, talde gisa.

F3. Gomendioen entrega

Lanaren azken fasea adostutako gomendioak garatzen bukatu eta Udalari entregatzea izango da.

Saio honetan garrantzi berezia dute gomendioak entregatzeko ekintza sinboliko eta politikoak zein agintari publikoek balorazio teknikoa egiteko eta erantzuna emateko duten konpromisoak.

Zer gertatuko da saioen ondoren?

Saio bakoitzak bere laburpena izango du akta formatuan. Laburpena posta elektronikoz bidaliko zaie parte-hartzaileei.

Eta zer gertatuko da Batzarraren ondoren?

Azken saioaren ondoren, entregatutako gomendioak publikoki aurkeztuko dira Udalbatzan. Udal Gobernuak balorazio teknikoa egiteko konpromisoa hartu du, eta aurrerago gomendioei erantzun arrazoitua emango die.

Non eta noiz izango dira saioak?

Saioak Bilboko bi Udaltegitan egingo dira:

Deustuko Udaltegia - Agirre Lehendakariaren etorbidea, 42

Metro geltokia: Deustu I Autobus geltokia: 1415 "Lehendakari Aguirre, 42" eta 1414 "Lehendakari Aguirre / Bidarte aurrean"

La Bolsa Udaltegia (Alde Zaharra) - Pilota, 10

Metro geltokia: Alde Zaharra I Autobus geltokia: 5106 5106 "Erriberako merkatua" eta 5102 "Areatza/Arriaga"

	Fecha	Lugar	Horario
S1	2025eko otsailaren 22an	Deustuko Udaltegitan	10:00 - 14:00
S2	2025eko martxoaren 15ean	Deustuko Udaltegitan	
S3	2025eko apirilaren 5ean	La Bolsa Udaltegitan	
S4	2025eko maiatzaren 10ean	Deustuko Udaltegitan	
S5	2025eko maiatzaren 24an	La Bolsa Udaltegitan	
S6	2025eko ekainaren 7an	La Bolsa Udaltegitan	

3. Klima-aldaketaren aurrean

Batzarraren galdera bizi dugun larrialdi klimatikoari eta Bilbo bezalako hiri batek klima-aldaketara egokitzeko eta arintzeko jokatzeko duen zereginari lotuta dago.

Klima-aldaketa

Klima-aldaketa tenperaturen eta klima-patroien epe luzerako aldaketei dagokio. Eguzkiaren jardueraren aldaketa naturalek edo sumendien erupzio handiek Lurreko tenperaturetan eta klima-ereduetan aldaketak eragin dituzte antzinatean, baina azken 200 urteetan, arrazoi natural horiek ez dute eragin nabarmenik izan tenperatura globaletan. Gaur egun, giza jarduerak eragiten dute klima-aldaketa, batez ere erregai fosilak erretzeagatik, hala nola ikatza, petrolioa eta gasa. (IPCC)

Erregai fosilak erretzeak Lurreko eguzkiaren beroa harrapatzen duen eta tenperatura globala igotzen duen kutsadura-geruza bat sortzen du. Lotura estua dago metatutako CO₂ isurketen eta gainazalaren tenperatura globalaren igoeraren artean.

Klima-aldaketak Lurreko eskualde guztiei eragiten die dagoeneko. Euri-ereduetan aldaketak, itsasoaren maila handitzea, glaziarrek urtzea, ozeanoak berotzea eta muturreko fenomeno meteorologiko ohikoenak eta bizienak dira dagoeneko milioika pertsonari eragiten dieten aldaketetako batzuk. (IPCC)

Komunitate zientifikoa bat dator gizakiak klima-aldaketaren erantzukizuna duela esatean.

Klima Aldaketari buruzko Gobernu Arteko Adituen Taldearen (IPCC) laburpen-txostenak, 2023ko martxoan argitaratutakoak, kategorikoki berretsi zuen giza jarduera dela klima-aldaketaren kausa nagusia.

Klima-aldaketa aurre egiteko giza erantzunak bi kategoria handitan multzokatu izan dira: arintzea eta egokitzea.

Zer da arintzea?

Klima-aldaketa arintzeko estrategiek berotegi-efektuko gasen isuri garbiak murriztea dute helburu, horiek baitira, azken batean, klima-aldaketa antropogenikoaren elikagai.

Zer da egokitzea?

Klima-aldaketa egokitzeko neurrien helburua da inpaktuak mugatzea, kalteberatasunak murriztea eta giza sistemen eta sistema naturalen erresilientzia areagotzea klima-aldaketa aurrean; biodibertsitatea, basoak, kostaldeak, hiriak, nekazaritza-sektorea, industria eta abar barne hartuz.

Egokitzea eta arintzea, estrategia osagarriak.

Estrategia desberdinak izan arren, garrantzitsua da aitortzea arintzea eta egokitzea oso osagarriak direla: arindu gabe, gure egokitzeko gaitasunak azkarrago egingo du gainezka. Bestalde, gure sistema sozioekologikoak egungo klimara edo espero den klimara eta horren ondorioetara egokitzeko prozesua beharrezkoa da.

Bilbo

Klima-aldaketatik eratorritako muturreko gertaerak direla eta, Bilbo bezalako hiriak behartuta daude erresilientziarako trantsizioa egitearen erronkei aurre egitera, klima-aldaketa probableenetara egokitzeke.

Hirian gerta daitezkeen klima-aldaketa onorioei lotutako arriskuak (euri-uholdeak, itsas mailaren igoera, bero-boladak, muturreko haizeak) minimizatzeko prestatu nahi du Bilbok, ingurune, pertsona eta jarduera kalteberei dagokienez.

Zer da erresilientzia?

Klima-aldaketa-erresilientzia pertsonen eta komunitateen klima-aldaketa inpaktuei aurre egiteko, egokitzeke eta lehengoratzeko duten gaitasuna da.

Iturriak:

www.un.org (Nazio Batuak. Klimaren Aldeko Ekintza, 2025)

www.ipcc.ch (Intergovernmental Panel on Climate Change (IPCC), 2025)

www.miteco.gob.es (Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioa, 2025)

Bilboko Ingurumen Estrategia 2020-2050

4. Parte hartzeko baldintzak

Zer eskatzen zaie Herritarren Batzarrean parte hartzen dutenei?

- Batzarraren bileretara joatea, dagokion tokian eta orduan.
- Koordinazio-taldearen jarraibideak betetzea eta saioetan proposatutako zereginetan aktiboki parte hartzea.
- Programatutako 6 saioetatik 5etan gutxienez parte hartzea.
- Bileretan izaten diren deliberazioen eta aurkezten diren agiriaren gaineko konfidentzialtasuna gordetzea.
- Saioren artean, noizbait, lan erraz bat egitea.

Dietak eta zerbitzuak

Antolakuntzak ahal den neurrian, Batzarkideek parte hartzeko baldintzak bermatuko ditu. Horretarako, lehenengo saioa baino lehen, inprimaki bat bidaltzen da honako hauei buruz galdetzeko:

- Bere hizkuntza ezagutza. Saioak euskaraz eta gaztelaniaz izango dira. Batzarkideek saioen edukia jarraitu ahal izatea bermatzen saiatuko da antolakuntza, erabiltzen den hizkuntza edozein dela ere.
- Bere zaintza-erantzukizunak, beharrezkoa izanez gero, zaintza-zerbitzu bat kudeatzeko batzarrean dagoen bitartean.

Parte-hartzaile bakoitzak 50€ jasoko ditu parte hartzen duen saio bakoitzeko, Herritarren Batzarraren saio guztietan parte hartzeagatik konpentsazio gisa. Parte hartzen den saio bakoitzeko 50€ jasotzeko, gutxienez 5 saiotara joan beharko da. Konpentsazio ekonomikoa programatutako 6 saioak amaitu ondoren jasoko da.